

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urriaren 5eko erabakia, Tokiko Gobernu Batzarraren eskuordetu Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari eskuordetzeari buruzkoa, itzuli delarik**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko erabakia zela medio, hainbat zeregin eskuordetu zitzaizkion Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari, Kirol eta Osasun Sailari zegoenez.

2020ko uztailaren 6an, amatasun-lizentzia hartu zuen López andreak, eta, hortaz, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 2ko erabakia zela medio, Iñaki Gurtubai Artetxe zinegotziari eskuordetu zitzaizkion, aldi baterako, ordura arte — Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordeturik — López andreak bere gain hartuak zituen eskumenak.

2020ko urriaren 5ean, bere zinegotzi-zereginetara itzuli da Livia Claudia López Gutiérrez, erabat, eta, hortaz, lehenago bere gain zituen eskumenak berriro ere bere gain utzi beharra dago.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.2. artikulua-  
ren ildotik, erabaki-proposamen hau egiten dio alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehen xedapena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari eskuordetzea zeregin hauek, Kirol eta Osasun Sailari dagokionez:

a) Lizentziak ematea.

b) 80.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren kontratazioa eta 100.000,00 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, kontratu pribatuak eta administrazio-kontratu bereziak.

Zerbitzu-emakiden eta obra-emakiden arloko kontratazioa Tokiko Gobernu Batzarrarentzat erreserbatuta geratzen da.

c) Aurreko b) letran azaldutako gastuen betebeharrak baimentzea, erabiltzea eta aitortzea.

d) Tokiko Gobernu Batzarrak obren, zerbitzuen, hornikuntzen, eta bestelako administrazio-kontratuen gaineko kontratazioak esleitu ondoren, horiek gauzatzearen ondorio diren obra-egiaztagiriak (azken egiaztagiria barne), fakturak eta beste onestea, kontratu bakoitzeko edukia- osotasuna edo zati bat izanda ere.

e) Zigorrezko ahalmenaz baliatzea.

Bigarren xedapena. Eraginik gabe uztea Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 2ko erabakia, zeinen bitartez Iñaki Gurtubai Artetxe zinegotziari eskuordetu baitzitzaizkion Kirol eta Osasun Sailari zegozkion zereginak.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 5ean

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**